

www.inter-ius.com

Teléfono 944069691 /675707690

mailto: info@inter-ius.com



1332/94 Errege Dekretua, ekainaren 20koa, Lege Organikoaren hainbat agindu garatzen dituen.

JUSTIZIA ETA BARNE MINISTERIOA

1332/1994 ERREGE DEKRETUA, ekainaren 20koa, urriaren 29ko 5/1992 Lege Organikoaren alderdi jakin batzuk garatzen dituena; lege organiko horrek datu pertsonalen tratamendu automatizatua arautzea zuen helburutzat.

5/1992 Lege Organikoak, urriaren 29koa bera, eta datu pertsonalen tratamendu automatizatua arautzeari buruzkoa, Gobernua gaitu egiten du, bere lehendabiziko azken xedapenean, beharrezko xedapenak eman ditzan lege horren aplikazio eta garapenerako, eta, aldi berean, hainbat agindutan, gobernuarentzako manu konkretu batzuk jasotzen ditu, alderdi jakin batzuk erregula ditzan araudiaren arabera; alderdi horietako gehienak prozedurazkoak dira, eta honako hauei buruzkoak: sartzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubideen erabilera; Datuak Babesteko Agentzian erreklamatzeko modua, Legearen kontrako jarduerengatik; datuen fitxategi automatizatuen jakinarazpena eta inskripzioa; eta urraketak zehazteko zein zigorrak ezartzeko prozedura.

Gaitze horretaz baliatuta, eta Lege Organikoko 15.1, 16.1, 17.1, 24.2, 38.3 eta 47.1 artikuluetan emandako manua betetze aldera, ondokoa xedatu da.

Haien kariaz, Justizia eta Barne ministroaren proposamenez, Herri Administrazioetarako ministroak onartuta, Datuak Babesteko Agentziak lehenago txosten bat egin ondoren, Estatu Kontseiluarekin bat etorritik eta Ministroen Kontseiluak 1994ko ekainaren 17an egindako bileran eztabaidatu ostean.

XEDATU DUT:

I. KAPITULUA: Xedapen orokorrak.

1. artikulua. Definizioak.

Errege Dekretu honetan xedatutakoetarako, adierazten den moduan ulertuko dira hurrengo hauek:

Datuen blokeoa: datuen identifikazioa eta erreserba, haien tratamendua eragozteko.

Datuak uztea: datuen eskuratzeko oro, horretarako fitxategi batean kontsulta eginez, beste fitxategi batzuekin interkonektatuz, eta eragindakoa ez den pertsona batek egindako datuen komunikazioa.

Publikoak eskura ditzakeen datuak: oro har, publiko osoarentzat eskuratzeko moduan dauden datuak, hori mugatzeko araurik indarrean egon ezean, eta honelakoetan jasota egonez gero: erroldak, urtekariak, datu-base publikoak, jurisprudentzia bildumak, prentsa artxiboak, telefono bildumak edo antzekoak; bai eta talde profesionaletakoak diren pertsonen zerrenda gisa argitaratutako datuak ere, honako hauek baino jasotzen ez dituztela: izenak, tituluak, lanbidea, jarduera, maila akademikoak, helbidea eta taldekoa delako adierazpena.

Datu pertsonalak: informazio zenbakizko, alfabetiko, grafiko, fotografiko, akustiko edo beste edonolako guztia, jaso, erregistratu, tratatu edo transmititu egin daitekeena, eta pertsona fisiko identifikatu edo identifikatu daitekeen bati dagokiona.

Eragindakoaren identifikazioa: eragindako pertsona fisikoaren nortasun fisiko, fisiologiko, psikiko, ekonomiko, kultural edo soziala zuzenean edo zeharka zehazteko modua ematen duen edozein elementu.

www.inter-ius.com

Teléfono 944069691 /675707690

mailto: info@inter-ius.com



Datuen transferentzia: datuen garraioa sistema informatikoen artean, edozein transmisio bide erabiliz, hala nola datuen euskarrien garraioa, posta bidez edo beste edozein bitarteko konbentzional baliatuz.

2. artikulua. Erregimen bereziak.

5/1992 Lege Organikoko 2.3 artikuluan xedatutakoaren arabera, kasuan kasuko lege eta araudietan, datuak babesteari dagokionez, jasota dauden xedapenek arautuko dituzte honako fitxategi hauek:

Hauteskunde-erregimeneko legediak araututako hautesle errolda, hautesleen fitxategia eta fitxategi osagarriak.

Fitxategi automatizatuak, helburu soil-soilik estatistikoekin sortuak izanez gero, eta, datuak babesteari dagokionez, funtzio estatistiko publikoa erregulatzen duen araudiak babestuta egonez gero, 5/1992 Lege Organikoko 36,m) artikuluan ohartarazitakoa alde batera utzi gabe.

Erregistro Zibilaren Legearen eta haren Araudiaren babesa duten egoera zibilaren fitxategi automatizatuak.

Kondenen agiritegiak gordetzen dituzten fitxategi automatizatuak.

Gai sailkatuen babesari buruzko araudiaren babesean sortu edo kudeatutako fitxategi automatizatuak.

Pertsonal militar profesionalaren erregimena arautzen duen uztailaren 19ko 17/1989 Legeko 68. artikuluan arautu txosten pertsonaletako datuak biltzea xedetzat duten fitxategi automatizatuak.

1985eko ekainaren 14ko Schengengo Ituna aplikatzeari buruzko 1990eko ekainaren 19ko Hitzarmeneko IV. eta VI. tituluetan zuzenbide nazionalera jotzeko dagoen bidaltze oharraz eta datu pertsonalen babesarako xedapen nazionaletara jotzeko nazioarteko hitzarmenetan dagoen beste edozein bidaltze oharrez den bezainbatean, ulertuko da datu pertsonalen tratamendu automatizatu arautzeko urriaren 29ko 5/1992 Lege Organikoari lotuta egongo direla, bai eta hura garatzeko arauzko xedapenei lotuta ere.

II. KAPITULUA: Datuen nazioarteko transferentzia.

3. artikulua. Transferentzien erregimena.

Datu pertsonalen transferentzian hartzaile den herriak ematen duen segurtasun maila ez bada 5/1992 Lege Organikoak ematen duenaren parekoa, Datuak Babesteko Agentziaren zuzendariak haien transferentzia baimentzeko, ezinbestekoa izango da datuen lagatzaileak egiaztatzea bete egin duela legeko aginduetan xedatutakoa, eta ematea horretarako eskatzen zaizkion bermeak. Xede horrekin, baimena emateko nahitaezkoa izango da modu-baldintza edo -karga batzuk betetzea, hain zuzen ere, beharrezkotzat jotzen direnak transferentziak kalterik egin ez diezaien eragindakoen eskubideei, eta 5/1992 Lege Organikoko II. Tituluan jasotako printzipioak errespetatu daitezken.

Baimenaren terminoak betetzen ez badira, datuen lagatzaileak eta hartzaileak bat eginik erantzungo dute 5/1992 Lege Organikoko 17.3 artikuluan aurreikusitakoaren ondorioetarako.

4. artikulua. Salbuespenak.

Datuak Babesteko Agentziako zuzendariaren baimena lortzetik salbuetsita daude, betiere, Espainiak izenpetuta dauzkan itun edo hitzarmenak aplikatuztik ondorioztatzen diren datu pertsonalen transferentziak, eta bereziki:

www.inter-ius.com

Teléfono 944069691 /675707690

mailto: info@inter-ius.com



- Segurtasun Indar eta Gorputzek ikerketa jakin baten arabera sortutako fitxategietan erregistratuta dauden datuen transmisioak, Interpol bidez egiten direnak, edo beste bide batzuk erabiliz, baldin eta horiek aurreikusita badaude Espainia partaide den hitzarmenetan, egiten ari den ikerketaren beharrek beste estatu batzuetako polizia zerbitzuetara helarazteko eskatuz gero.

- Schengen Informazio Sistemaren espainiar zati nazionalean erregistratutako datuen transmisioak, sistemaren laguntza unitatearentzat badira, sistemako datuak erabili beharra daukan abiarazitako polizia ikerketa batean erabiltzeko baino ez. Europar Batasuneko Hitzarmeneko VI. Tituluan informazioa trukatzeko jasotzen den sisteman aurreikusitako datu transmisioak.

- Zerga administrazioek sortu fitxategietan erregistratutako datuen transmisioak, Europar Batasuneko gainerako estatu kideen aldekoak badira, edo beste estatu batzuen aldekoak, zerga arloan elkarri laguntzeko nazioarteko hitzarmenetan xedatutakoaren arabera.

Datuak hartuko dituen estatua edozein izanik ere, Datuak Babesteko Agentziako zuzendariaren alde aurreko baimena lortzetik salbuetsita daude, halaber, erreguak, agindu-gutunak, erreguzko gutunak eta nazioartean laguntza judiziala emateko egiten diren beste eskaerak betetzearren gauzatzen diren datuen transmisioak, hala nola 5/1992 Lege Organikoko 33. artikuluan aurreikusitako gainerako kasuak.

III. KAPITULUA: Fitxategien jakinarazpena eta inskripzioa.

5. artikulua. Titulartasun publikoko fitxategien jakinarazpena.

Datu pertsonalak gordetzen dituen titulartasun publikoko edozein fitxategiren kasuan, fitxategiaren ardura duen Administraziooko organo eskudunak emango dio haren berri Datuak Babesteko Agentziari, Datuak Babesteko Erregistro Orokorrean sar dezan. Horretarako, Agentziak propio egindako eredu normalizatua erabiliz, fitxategia sortzeko xedapenaren kopia helarazi beharko zaio.

6. artikulua. Titulartasun pribatuko fitxategien jakinarazpena.

Datu pertsonalen fitxategi bat sortu nahi duen pertsonak edo erakundeak, alde aurretik, asmo hori jakinarazi beharko dio Datuak Babesteko Agentziari, idatziz edo euskarri informatikoa erabiliz; horretarako, Agentziak egindako eredu normalizatua baliatuko du, eta bertan honako hauek zehaztuko dira:

- 1.- Fitxategiaren arduradunaren izena, merkatu izena, nortasun agiri nazionala edo identifikazio fiskaleko kodea, helbidea eta jarduera edo sozietatearen xedea.
- 2.- Fitxategiaren kokapena.
- 3.- Tratatu nahi diren datuen identifikazioa, bereziki babestutako datuen kasuak banakatuz.
- 4.- Sartzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubideak gauza daitezkeen bulegoaren edo lekuaren helbidea.
- 5.- Datuen jatorria.
- 6.- Fitxategiaren helburua.
- 7.- Aurreikusitako datu lagapenak.
- 8.- Beste herrialde batzuetara egin nahi diren alde baterako edo behin betiko transferentziak, haiek zein diren adierazten den bidenabar.
- 9.- Lagapen edo transferentzietarako aurreikusita dauden hartzaileak edo erabiltzaileak.
- 10.- Erabiliko diren automatizatutako tratamendu sistemak.

www.inter-ius.com

Teléfono 944069691 /675707690

mailto: info@inter-ius.com



11.- Segurtasun neurriak.

7. artikulua. Fitxategien inskripzioa.

1.- Titulartasun publikoko fitxategiak ofizioz erregistratuko ditu Datuak Babesteko Agentziak, fitxategia sortzeko xedapenaren kopia jaso ondoren.

2.- Datuak Babesteko Agentziako zuzendariak, Datuak Babesteko Erregistro Orokorren proposamenez, titulartasun pribatuko fitxategiak erregistratzea erabakiko du, baldin eta jakinarazpenak aginduzko informazioa badu, eta legezko gainerako eskakizunak betetzen badira. Bestela, fitxategiaren arduradunari osatzeko eskatuko dio, edo zuzentzeko hamar eguneko epean; hala egin ezean, eskaerari uko egin diola ulertuko da, eta eskaera artxibatu egingo da, ezer gehiago egin gabe.

3.- Inskripzioak, fitxategiak titulartasun publikokoak badira, 5/1992 Lege Organikoko 18.2 artikuluan aurreikusitako oharrak izango ditu, eta fitxategia sortzeko xedapen orokorra eta haren argitalpenari dagokion egunkari ofiziala zehaztuko dira; fitxategiak titulartasun pribatukoak badira, egungo Errege Dekretuko 6. artikuluan zerrendatuta agertzen direnak, segurtasun neurriak izan ezik.

4.- Erregistroa fitxategiaren arduradunari jakinaraziko dio Datuak Babesteko Erregistro Orokorrek.

8. artikulua. Inskripzioa aldatu eta ezabatzea.

1.- Titulartasun publikoko fitxategien inskripzioa ofizioz aldatu edo, bestela, ezabatuko du Datuak Babesteko Agentziak, fitxategiaren ardura duen administrazio organoak hura aldatzen edo ezabatzen duen xedapen orokorraren kopia bat helarazi ondoren.

2.- Fitxategiak titulartasun pribatukoak badira, Errege Dekretu honetako 6. artikuluan aipatzen direnen edukian geroago edozein aldaketa gertatuz gero, jakinarazi egingo zaio, erregistroan jasotzeko, eta hala egokituz gero, Datuak Babesteko Agentziari, hura gertatu eta ondoko hilabeteko epean. Epe berean jakinaraziko da fitxategia ezabatzeko erabakia, hari dagokion erregistro idazpena kentzearen.

9. artikulua. Eredu-kodeen inskripzioa eta publizitatea.

1.-Eredu-kodeak, inskripzioa egiteko, Datuak Babesteko Erregistro Orokorrean gordailatuko dira. 2.- Datuak Babesteko Agentziako zuzendariak eragotzi ahal izango du inskripzioa egitea, baldin eta eredu-kodea ez badator bat 5/1992 Lege Organikoko eta Errege Dekretu honetako xedapenekin, inola ere baztertu gabe eskatzaileei akatsak konpontzeko galdea egitea. 3.- Partikularrek Datuak Babesteko Erregistro Orokorrean gordailatu eta inskribatutako eredu-kodeen kopiak eskuratu ahal izango dituzte. 4.- Eredu-kodeetan jasotako arauak ez badira betetzen, horiek formulatu dituzten akordio edo erabakietan horretarako xedatutakoari jarraituko zaio.

10. artikulua. Bitartekoak.

Datuak Babesteko Agentziako zuzendariak inskripzioaz edo, bestela, fitxategi edo eredu-kode baten erregistroa aldatzeaz edo ezabatzeaz hartutako ebazpenen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri ahal izango da.

IV. KAPITULUA: Eragindakoaren eskubideen erabilera eta babesa.

www.inter-ius.com

Teléfono 944069691 /675707690

mailto: info@inter-ius.com



11. artikulua. Eskubideak pertsonalak dira.

Fitxategi automatizatuetan sartzeko eskubideak, hala nola datuak zuzentzeko eta ezabatzeak, guztiz pertsonalak dira, eta eragindakoak fitxategiaren arduradunaren aurrean baliatuko ditu, 5/1992 Lege Organikoak eta Errege Dekretu honek aurreikusitakoak beste mugarik izan gabe.

Hala ere, eragindakoak ezin baditu berak zuzenean horiek erabili, ezinduta dagoelako, edo adinez txikia delako, haren legezko ordezkariak jardun ahal izango du.

12. artikulua. Sartzeko eskubidea.

Sartzeko eskubidea erabiltzeko, beharrezkoa izango da horretarako eskabidea fitxategiaren arduradunari helaraztea, eta, horretarako, edozein bitarteko erabili ahal izango da, baldin eta eragindakoaren identifikazioa bermatzen badu, eta kontsultatu beharreko fitxategia edo fitxategiak adieraziz gero.

Eragindakoak fitxategia kontsultatzeko sistema hauetako bat edo batzuk hautatzeko aukera izango du, betiere fitxategiaren osaera eta ezarpen materialak horretarako modua emanez gero:

-Pantailan bistaratzea.

-Idazkia, kopia edo postaz igorritako fotokopia. -

Telekopia.

Fitxategiaren osaera eta ezarpen materialerako egokia den beste edozein prozedura, haren arduradunak eskainita.

Fitxategiaren arduradunak sartzeko eskaera jaso eta, gehienez ere, hilabeteko epean hartuko du erabakia. Epe hori sartzeko eskabideari berariaz erantzun gabe igarotzen bada, ulertu beharko da ezezkoa eman zaiola, 5/1992 Lege Organikoko 17.1 artikuluan aurreikusitako erreklamazioaren jartze-ondorioetarako.

Ebazpenak eskabidea aintzat hartzen badu, sarrera ebazpena jakinarazi eta hurrengo hamar eguneko epean gauzatuko da.

13. artikulua. Informazioaren edukia.

Informazioa zabaltzeko euskarria edozein izanda ere, modu irakurgarrian eta ulergarrian emango da, fitxategiko datuak argi transkribatu ondoren, hala egokituz gero.

Informazioak honako hauek jasoko ditu: eragindakoaren oinarrizko datuak, edozein lantze edo prozesu informatikotatik ateratakoak, datuen jatorria, haien lagatzaileak, eta, datuak biltegitazeari dagokionez, horretarako zein helburu zeuden zehaztea, konkretuki zertarako erabili nahi ziren.

14. artikulua. Sartzeari ezezkoa ematea.

Titulartasun publikoko fitxategietan erregistratutako datu pertsonaletarako sarrerari ezezkoa emango zaio, baldin eta 5/1992 Lege Organikoko 14.3, 21.1 eta 2 eta 22.2 artikuluetan jasotako hipotesietako bat betetzen bada.

Titulartasun pribatuko fitxategietan erregistratutako datu pertsonalak badira, eskabideari ezezkoa eragindakoa ez den pertsona batek egiten duenean baino ez zaio emango.

15. artikulua. Sartzeari ezezkoa ematea.

www.inter-ius.com

Teléfono 944069691 /675707690

mailto: info@inter-ius.com



Fitxategian sartzean ikusten bada eragindakoari buruzko datuak ez direla zuzenak edo osoak, edo, halaber, desegokiak edo gehiegizkoak badira, eragindakoak datuak zuzentzeko edo, hala egokituz gero, ezabatzeko eskatu ahal izango dio fitxategiaren arduradunari.

Hala ere, datuetan administrazio prozedura batean egiaztatutako egintzak islatzen badira, haiek zuzentzat joko dira, prozedurarekin bat etorriz gero.

Fitxategiaren arduradunak egingo du zuzenketa edo ezabatzea, eskabidea jaso eta hurrengo bost eguneko epean. Epe berean egingo da 5/1992 Lege Organikoko 15.3 artikuluan aipatzen den jakinarazpena.

Fitxategiaren arduradunak uste badu ez dela onartu behar eragindakoak eskatutakoa, horren berri arrazoitua emango zaio eskatzaileari, aurreko atalean adierazitako epean, 5/1992 Lege Organikoko 17.1 artikuluan aurreikusitako erreklamazioaz baliatzeko modua izan dezan.

Zuzentzeko edo ezabatzeko eskaerari berariazko erantzunik eman gabe igarotzen bada 2. atalean aurreikusitako epea, hari ezezkoa eman zaiola ulertu beharko da, dagokion erreklamazioa jartze ondorioetarako.

16. artikulua. Datuen blokeoa.

Datuak ezabatzea bidezkoa izan arren, ezinezkoa bada horiek fisikoki desagerraraztea, arrazoi teknikoengatik bezala erabilitako prozedura edo euskarriengatik ere, fitxategiaren arduradunak datuen blokeoa egingo du, horiek geroago prozesatzea edo erabiltzea eragozteko.

Hala ere, hori ez da gertatuko datuak iruzurrezko, leialtasunik gabeko edo legez kontrako bitartekoak erabiliz jaso edo erregistratu direla frogatzen bada; orduan, datuak ezabatzeak beti ekarriko du agertzen diren euskarria apurtzea.

Fitxategiaren arduradunak datuak blokeatzeko hartutako erabakiaren aurka erreklamazioa egin ahal izango da Datuak Babesteko Agentziako zuzendariarenean.

17. artikulua. Eskubideen babesa.

Eragindakoek Datuak Babesteko Agentzian egiten dituzten erreklamazioak, 5/1992 Lege Organikoko 17.1 artikuluan aipatuta, artikulua honetan adierazitako moduan bideratuko dira.

Eragindakoaren edo eragindakoen eskariz abiaraziko da prozedura, eta argi adieraziko dira bai erreklamazioaren edukia bai urratutzat jotzen diren 5/1992 Lege Organikoko aginduak.

Erreklamazioa Datuak Babesteko Agentzian jaso ondoren, fitxategiaren arduradunari helaraziko zaio, hamabost eguneko epean bidezkotzat jotzen dituen alegazioak egin ditzan.

Alegazioak jaso edo aurreko atalean aurreikusitako epea igaro ondoren, Datuak Babesteko Agentziak, txostenak, probak eta instrukziorako bidezkoak diren beste egintzak aztertu ondoren, bai eta eragindakoari eta, berriz ere, fitxategiaren arduradunari entzun ondoren ere, egindako erreklamazioaz erabakiko du, eta interesatuei emango die erabakitakoaren berri.

Administrazioarekiko auzi errekurtsua paratu ahal izango da zuzendariaren erabakiaren aurka.

www.inter-ius.com

Teléfono 944069691 /675707690

mailto: info@inter-ius.com



V. KAPITULUA: Zigortze prozedura.

18. artikulua. Hasiera eta instrukzioa.

5/1992 Lege Organikoko 47. artikuluan jasotako zigortze prozedura beti ofizioz hasiko da, norberaren ekimenez, edo eragindako baten edo batzuen salaketa bidez, Datuak Babesteko Agentziako zuzendariak erabakita; erabakian norbait instrukzioaren egile izendatuko da, eta, egokituz gero, idazkari, eta berariaz adieraziko da horiek ezezteko erregimena.

Erabaki horretan, ustez erantzule d(ir)en pertsona(k) identifikatuko d(ir)a, eta egotzitako ekintzak zehaztuko, eta bai ustez egindako lege-urraketa bai ezar daite(z)keen zigorra(k) adieraziko d(ir)a, hala nola, hala egokituz gero, hartzen diren behin-behineko neurriak.

Espedientea abiarazteko erabakia ustezko erantzuleari jakinarazi, eta bertan esango zaio eskubidea duela alegazioak egiteko eta bidezko defentsa bitartekoak erabiltzeko, eta, hala behar izanez gero, zigorra ezartzeko agintari eskuduna Datuak Babesteko Agentziako zuzendaria dela, eta berariaz aipatuko dira artikulua hau eta 36.g) artikulua, 35. artikuluari dagokionez; biak ere 5/1992 Lege Organikokoak dira. Abiarazte erabakia jakinarazi eta hamabost eguneko epean, instrukzio egileak, ofizioz, gertatutakoa argitzeko eta zigor daitezkeen erantzukizunak zehazteko egokiak diren instrukzioko egintza eta proba guztiak egiteko aginduko du. Epe berean, ustezko erantzuleak alegazioak egin eta egokituz jotzen dituen probak proposatu ahal izango ditu.

Aurreko atalean aurreikusitako epea igaro ondoren, instrukzio egileak bidezkotzat jotzen dituen probak egitea erabakiko du, eta, horretarako, hogeita hamar eguneko epea emango du; epe hori iragan ondoren, espedientea ustezko erantzuleari jakinaraziko zaio, hamabost eguneko epean alegazioak egin eta interesekotzat jotzen dituen dokumentu guztiak aurkez ditzan.

19. artikulua. Ebazpena.

Aurreko artikuluan aurreikusitako izapideak egin ondoren, instrukzio egileak ebazpen proposamen arrazoitua egingo du, eta horretan gertaerak argi eta zehatz finkatuko dira, ezezkoa, hala egokituz gero, arrazoitu egingo da, bai eta ustezko erantzuleak proposatutako proba-praktikari emandakoa ere, haiek juridikoki ebaluatu egingo dira, gertatutako urraketa zehazteko, eta ezarri beharreko zigorra adieraziko da, haren kopurua zehazten den bidenabar, horretarako 5/1992 Lege Organikoko 44.4 artikuluan ezarritako irizpideak kontuan hartuta, edo, bestela, ezerean erantzukizunik ez dagoela esatea proposatuko da.

Ebazpen proposamena ustezko erantzuleari jakinaraziko zaio, hamabost eguneko epean alegazio gehiago aurkez ditzan, hala nahi izanez gero. Ebazpen proposamena jakinarazi edo aurreko atalean alegazioak aurkezteko adierazitako epea bukatu ondoren, instrukzio egileak espediente osoa Datuak Babesteko Agentziako zuzendariari helaraziko dio.

Zuzendariak, erabakia eman baino lehen, beharrezkotzat jotzen dituen jarduketa guztiak egiteko agindu ahal izango dio instrukzio egileari, eta horiek gehienez ere hamabost eguneko epean egingo dira.

Ebazpena hurrengo hamar egunen barruan emango da, eta horrek beharrezko zehaztasunaz zehaztuko ditu egotzitako ekintzak, egindako lege-haustea, sailkatzen duen aginduaren adierazpenarekin batera, haren erantzulea eta ezarritako zigorra; edo, bestela, erantzukizunik ez dagoelako adierazpena. Era berean, adierazpen egoki bat jasoko du prozedura bideratu bitartean hartutako behin-behineko neurriei buruz.

Ebazpena erantzuleari jakinaraziko zaio, eta, halaber, esango zaio administrazioarekiko auzi errekurtsioa

www.inter-ius.com

Teléfono 944069691 /675707690

mailto: info@inter-ius.com



jartzeko eskubidea duela, horretarako epe bat dagoela, eta zein organotan aurkeztu behar duen.

Eragindako batek egindako salaketaren ondorioz hasi bada prozedura, ebazpena haren sinatzaileari jakinarazi beharko zaio.

XEDAPENAK.

Lehen xedapen gehigarria: aurrez dauden fitxategien jakinarazpena.

5/1992 Lege Organikoa indarrean jarri ondoren eta Errege Dekretu hau indarrean egon baino lehen datu pertsonalak gordetzeko sortutako fitxategi automatizatuak Datuak Babesteko Agentziari jakinarazi beharko zaizkio, 1994ko uztailearen 31 baino lehen.

Bigarren xedapen gehigarria: Autonomia Erkidegoetako Fitxategiak.

Beren fitxategiei dagokienez, autonomia erkidegoei dagokie eragindakoaren eskubideen erabilera zein babesa eta zigortze prozedura arautzea, betiere 5/1992 Lege Organikoan ezarritako moduan eta mugekin, eta prozedura administratzaile komuneko arauen arabera.

Hirugarren xedapen gehigarria: Zerga administrazioetako fitxategiak.

Zerga administrazioek esleitzen zaizkien zergak kudeatzeko sortutako fitxategiek Errege Dekretu honetako xedapenei jarraituko diete, bai eta, 5/1992 Lege Organikoa garatzeko eta horretan xedatutakoari lotuta, beraietarako espezifikoki onartzen diren arauzko gainerako xedapenei ere.

Lehendabiziko azken xedapena: pareko babesa duten herrialdeen zerrenda.

Justizia eta Barne ministroari ahalmena ematen zaio, Datuak Babesteko Agentziako zuzendariaren argibideak jaso ondoren, ontzat har dezan, 5/1992 Lege Organikoko 32. artikuluan xedatutakoaren arabera, lege horren neurri bereko babes maila ematen duten herrialdeen zerrenda.

Bigarren azken xedapena: Indarrean jartzea.

Errege Dekretu hau “Estatuko Aldizkari Ofizialean” argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean.

Madriilen emana, 1994ko ekainaren 20an.

JUAN CARLOS erregea

Justizia eta Barne ministroa,

JUAN ALBERTO BELLOCH JULBE